

Aretxabaleta,
1993ko azaroak 11

Aretxabaleta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA

Liburuen erreinuan

• Atzeratuen
aldeko jaialdia

• Afizioak:
Asier Cobos

• Kirolak:
Ziklo-krosa



Izena: Gurendane
Abizenak: Gonzalez Lasa
Non jaiio: Arrasaten
Non bizia: Bergaran
Lanbidea: Irakaslea
Ezkondua? Bai
Zenbat seme-alabekin: Bat ere ez

• **Kurtzebarri Eskolako Zuzendaria.**

- **Armozatu zer?**
- Lehenengo yogurt naturala hartzen dut eta ostein esnea gailatekin.
- **Tebistan zer ikusten duzu?**
- Gutxi ikusten dut, gabetan zerbait berezia dagoen.
- **Eguneko momentu onena?**
- Ilunkara, lana bukatuta gero etxean patxadan egoteko momentua.
- **Afizio bat?**
- Musika
- **Birtute bat?**
- Amabilitatea
- **Gomendatu liburu bat?**
- Isabel Allende, "La Casa de los Espiritus"
- **Erregalua Olentzerotan edo Erregetan?**
- Bietan
- **Gabonak tristeak edo alaiak dira?**
- Tristeak dira, familia biltzea niretako derrigortutako bilerak dira, ni deprimituta egoten naiz.
- **Beldurra zeri?**
- Gauza pila bati, baina gehien jende asko biltzen den toki batean egoteari, izugarritzko inseguritatea ematen dit.
- **Edade bat?**
- 30 urte
- **Seme-alaba kopuru ideala?**
- Bi
- **Telebistak familian lagundu edo kalte egiten du?**

- Kalte, denbora asko egoten delako jendea telebistarekin pendiente eta hainbat gauzatan hutsuneak sortzen dira.
- **Noiz elkartzen zara lagunekin?**
- Asteburuetan
- **Ikusten duzu zeure burua erresidentzian?**
- Bai, gainera ez dut itxaropen handirik zahartzarora heltzeko.
- **Lau egunetako lana egitea zela ikusten duzu?**
- Ni lau egunetan lana egiteko prest egongo nintzateke, nahiz eta horrela lan batean, antolaketa aldetik oso gaxta dela ikusi.
- **Maltzaga-Urbina autobidea ?**
- Horrelako errepide batek asko samurtuko luke bidea, dena dela, horren inguruan beste arrazoi batzuk daudela uste dut, beraz ondo aztertu beharko litzateke.
- **Zezenketak, bai ala ez?**
- Ez, ez nago zezenketen alde
- **Organoak emango zenituzke?**
- Bai, organo emalea naiz.
- **Soziedadeetan emakumeak sartzearen alde ala kontra?**
- Txarto iruditzen zait bazkide izateko aukera hori ez izatea, baina bestalde sukaldian ez sartzea... ez diot horri inolako oztoporik jartzen.
- **Zerbitzuren bat faltan botatzen duzu herrian?**
- Ez dut ezagutzen ondo herria, irakaskuntzaren inguruan behar bada Udaleko eskola kontseilu muni-zipala falta dela uste dut.

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Jon Antxia, Iñigo San Juan, Miriam Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Itxaro Zubillaga eta Agurtzane Elkorro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, R. Velasco, J. Fuensanta, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Eguzkigraf **Tirada:** 2.500 ale.
 Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

Lau egunetan lan egitea zer iruditzen zaizu?




**Andres
Etxebarriarteun**

Egunean pertsona batek 4 ordu lan egingo balu eta beste batek beste 4 hobeto ibiliko ginateke .eta langabezi gutxiago egongo litzateke.



**M del Mar Oyon
(langilea)**

Nigatik ondo, baina aurrez jakin beharko genuke zenbat kobratu behar dugun. Batzuek 4 egun lan eginda bizitzeko lain edukiko dute, baina familia bat mantendu behar baduzu eta soldatetik dirua kentzen badizute, nekez aterako duzu aurrera familia.



**Matias Uribesalgo
(jubilatua)**

Lan gutxiago eginda, gutxiago irabazi!, horrek langabezia hobetuko balu ez dut txarto ikusten. Hemen lana banatzea falta da, horrela hobeto ibiliko lirateke bai lanean dabiltzanak eta baita ez dutenak ere.




**Emilia Carrasco
(langabetua)**

Jende asko dago langabezia eta behar bada irtenbide bat izango litzateke. Dena dela, ez dut oso ondo ikusten, baina langabezia murrizteko balioko balu aztertu beharko genuke.

KARTAK

Kepa Urraren epaiketa



Pasa den azaroaren 3an, Kepa Urra atxabaltarraren aurkako lehen epaiketa egin zen Madrileko entzutegi nazionalan, Atxabaltatik joandako autobuskada

bat bertan egon zelarik.

Beraien azalpenetan lekukoek, leporatzen zizaien ekintza Keparen partehartzea ukatu zuten arren, 3 urtetako kartzela zigorra eskatuzion fiskalak. (Aldez aurretik, eskaera 10 urtetakoa zen).

Kepak, atxilotuta zutenean jasandako torturak salatu zituen, bai eta hauek, oraindik ere eta sistematikoki erabiltzen direla ere. Honen adibide gisa, Gurutze Yanci

eta Xabier Kalparsororen heriotzak gogorarazi zituen. Honekin batera, espetxeetako egoera laztak suposatzen duen "tortura zuria" ere salatu zuen.

Epaiketa honen emaitzaz, zein oraindik izan behar dituen beste epaiketei buruzko berririk izan bezain laster, jakitera emango dizkizuegu.

**Amnistiaren
Aldeko Batzordea**

Orrialde honetan kartak argitaratu gura badituzue, zuzendu gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara. Animatu zaitzete, zuen karten zain gaude eta. Idazten dituzuen eskutitzek sinatuta egon behar dute, anonimoak ez ditugu argitaratzen eta.

Aretxagazeta



Atzeratuen aldeko jaialdia

Aspaldiko ohiturari jarraituaz, aurten ere atzeratuen aldeko jaialdia izango dugu Atxalbaltan, azaroaren 13an. Gabeko 10etan hasiko den ekitaldi horretan honako egitaraua izango dugu:

Aratxabaletako akordeoi orkestrak lau obra joko ditu. Zuzendari lanetan Juan Jose Orobenago eta perkusioan Jose Ramon Elkoro dutela Atxalbaltako 20 neska-mutikoren emanaldi bikaina entzuteko aukera izango dugu.

Arrasate musikaleko tronboi-laukoteak, barriz, bestelau kantuei eskainiko ditu; Trombumba, Dancing sprite, Finale from

symphony n°1 Brahms eta Moon river.

Horrez gain, Atxalbaltako Mireia eta Nagore Olabe ahizpek, batak flautaz eta besteak pinoan, Latenpesta dimare eta Concierto en fa mayor eskainiko dizkigute. Mireia Olabek barriro, baina oraingoan Itziar Etxaberekin batera Moderato izeneko obra joko dute. Eta azken bikoteak, Isabella Blezien (pianoan) eta Mariatzen Urkiak, bere ahots gozoaz Stilen Nacha, Aria eta Romanza de Katuska kantatuko du.

Gasteizeko Coral Samaniego ezaguna ere izango da atzeratuen aldeko jaialdian.



Mendi astea

Murrukixoko mendizale elkarteak Mendi astea antolatu du azaroaren 22tik 28ra bitartean. Zazpi egunetan zehar ekingiz desberdinak izango ditugu, hona hemen egunetik egunera izango denaren berri:

Azaroaren 22an asatelehen. Ion Lazkanok "Errusian eskalada" gaiari buruzko hitzaldia emango du.

Azaroaren 28an, Jose Karlos Tamaio "Patagonia izotzetan" gaia jorratuko du.

Azaroaren 24ean, Felix Inurrategi Atxabaltarrak "K2 espedizioari" buruzko xehetasunak azalduko ditu.

Azaroaren 25ean, Jose Luis Zuloaga eta Kike

de Pablok "Mazeno Peak- Valle de Unzari" buruzko diapositiba emanaldia emango dute.

Azaroaren 26ean, Enri Lukas "Anapurna Hegoa" diapositiba emanaldia eskainiko du.

Akordatu eragin gura dizuegu ekintzok Zaratzen Zineman izango direla eta ordua arratsaldeko 7etan.

Emanaldi guztien ostean galdera-erantzunen tarteak izango da

Azaroaren 27an ostera, umeentzako jolasak eta tirolina izango ditugu.

Mendi asteari bukera emateko, domekan, 28an Ion Antxia Alberdieri omenaldia egingo zaio, Murrukixoko antolatuta.

IOSU
URDAITEGIA
Mitarte, 1

Martín
Mitarte, 16
☎ 79 01 72

ZIRT - ZART
ESTILISTAK
ORDUTEGI INTENTSIBOA:
10etatik 6,30ak arte
Gorbea Kalea, 2 - Tfnoa: 77 09 44



Bertso afaria

Larrinoko San Kristobal Elkartek bertso afaria antolatu du azaroaren 27rako, zapatuan. Bertso afaria gabeko 9etan hasiko da eta bertan Jose Luis Gorrotxategi, Txomin Garmendia eta Xabier Zeberio

bertsolariek parte hartuko dute.

Afarira erakargarri horretara joan gura duzen denok Taberna Berri Jate-txean eta Gurea Jate-txean erosi ditzakezue txartelak.

On Jose Maria Arizmendarreta VIII. lehiaketa

Bukatu da dagoeneko Gizabide Fundazioak antolatzen duen "On Jose Maria Arizmendarreta VIII. Lehiaketan" parte hartzeko epea.

Gutzira 20 lan baino gehiago jaso dira Euskal Herri osotik. 14tik 18 urte bitarteko gazteek "LAN-GABEZIA ETA SOLIDARITATEA" izan dute aurten lan-du beharreko gaia.

Bi maila desberdinetako lanak daude: A maila, (14-16 urte) eta B maila (16-18). Aurten ere jasotako lanen kalitate maila oso ona izan da.

Datorren abenduaren 2an, Eskola Politeknikoan On Jose Maria Arizmendarretaren omenez egingo den Ekintza Akademikoan jakingo ditugu irabazleen izenak.

Gurasoen arteko topaketak

Aretxabaletako drogo-menpekotasun zerbitzuak bultzatuta hitzaldi batzuk izango ditugu azaroaren 22tik 25era arte. Gurasoei zuzendutako topaketak izango dira. Antolatzaileen asmoa ez da ekintza puntuala egitea, gura duten gurasoekin tailerretan lanean jarraitzea baizik. Beraz, hitzaldien funtsa prebentzioa da, arazoa agertu aurretik neurriak hartzea eta egoera bakoitzari erantzun egokia ematen jakitea.

Egitaraua:

22an astelehena: "Eboluziozko eta prebentziozko psikologia"

23an martizena: "Drogamenpekotasunari buruzko prebentzioak"

24an eguaztena: "Denbora libre eta prebentzioa"

25ean eguena: "Familiaren papera"


Hitzaldi horiek Kurtzerri Eskolan izango dira, ordutegiari dagokionez arratsaldeko 6etatik 8ak arte. Topaketen dinamizazioa "Izadia" taldearen esku egongo da.

• Gobernu batzordeak egin duen azken bileran, Murun antena bat ipintzea onartu zen, horrela Atxabaltan Arrasate Telebisita (ATB) ikusteko. Horrek izango duen gastua 670.500 ptzkoa izango da

• Atxabaltarrak ez zareten Kirol-etxeko bazkideak edo egin gura duzenok datorren urtetik aurrera tarifetan aldaketa batzuk izango dituzue, zuendako tarifa bereziak jarriko dira martxan. Zehaztasun gehiago jakin gura baduzue Kirol-etxera zuzendu edo 796461 telefonora deitu. Inma Migelek argituko dizkizue arazo guztiak.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



ZENBAKI
Aholkularitza

Basabe industrialdea
Aretxabaleta
Tfnoa: 79 88 75

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Biteri etorb. 15
Arrasate
Tfnoa: 77 12 39




Behobia-San Sebastian

Datorren domekan, 14ean, Behobia-San Sebastian maratoia korrituko da. Urtero bezala, Atxabaltatik taldetxo bat joango da. Taldetxo horrek, lasterketa bukatuta gero Zarautzen bazkalduko

du.

Baten batek apuntatu gura badu, autobusa dago antolatuta. Beraz joan gura duzuenok, Kirol-etxean Joseba Larri-nagari eman diezaioketue izena.



Kontenedore barriak

Atxabaltako Udalak papera botatzeko beste lau kontenedore erosi behar ditu. Kontenedore barri horiek toki desberdinetan ipiniko dira: Araba ibilbidea 36an, Industrialdean, Santakurtz 13an eta eta Lausita

10ean.

Almen inguruan beste kontenedore baten beharra ikusita, Aretxabaletako Udalak Mankomunitateari inguru horretan beste kontenedore bat ipini dezan eskatu dio.

Umeentzako txontxongiloak

Beinke Elkarteak antolatuta, azaroaren 13an, zapatuan, umeentzako txontxongilo emanaldia izango da zaraia zineman. Enkarni Genua txontxongilolaria "Ipurtargia" izeneko emanaldia eskainiko

digu.

Azaroaren 12rako, barriz, kantu afaria antolatu dute, Uratz-alde Elkarteak. Afari hori arratsaldeko 8,30etan hasiko da eta ea oraingoan ere umore onak ez duen huts egingen.

Artisau langintzen ferixa

Azaroaren 13 eta 14ean, Leintz Gatzagan, San Millixanak 93 jaien barruan, artisau langintzen ferixa izango da, Gatzagako Artisau Kolektiboak antolatuta.

Ferixa horrek, Deba Garaian gaur egun artisau lanetan dabiltzan artisauen topaketa izan gura du. Ferixaren helburua herritar eta dendariendako tailer, langintza eta artikuluen erakustoki izatea gura du.

Ferixa hori Hertoian egingo da, zapatuan, azaroaren 13an goizeko 11etatik ordu biak arte egingo da zabalik eta arratsaldean 4retatik 7ak arte eta domekan goizeko 11etatik eguerdiko ordu bi terdiak arte.

Ferixa horretan erakusketa eta salmenta

egingo da, bertara joango diren partehartzaile batzuk honako hauek izango dira: Iñaki Jauregialzo (keramika), Karlos Oianguren (bitxigintza), Iñigo Zabaleta (beiragintza), Kepa Uribarren (egurrezko taila), Imanol Aranburu (keramika), Joseba Gastiain (antzinako musika tresnak), Ignacio Zubillaga (antzinako armak), Ana Orgaz (Ehungintza)...

Horretaz aparte bi egunetan trikiti doinu artean talo et a gartzaina erreak probatzeko aukera izango duzue bertaraino hurreratzen zareten denok.

Antolatzaileek lehen ekitaldi honekin etorkizunean Gatzagan egingo direnen oinarria izan gura dute San Millixanetako feria hau.

Ospital zaharreko zonaldea

Gipuzkoako Foru Al-
dundiko Diputatu Kon-
tseiluak, Lan Hidrauliko
eta Ingurugiro saileko di-
putatuen proposamena-
rekin, ospital zaharraren
zonaldean hondatuta
dauden lekuak erreku-
peratzeko proiektua
onartu du, aurrekontua
bataz beste 16.972.128
pztkoia izango da.

Errekuperatu gura
den alde bariantetik tren
geltoki zaharrera doana
da. Guzti horrekin hiri-
tarren bizitza kalitatea
hobetu gura da Iñaki
Pierruguesek, hirigintza-
ren ardura duen zinego-
tziak, azaldu digunez.
Zonaldea, denbora libre-
rako, herritarrendako
baliogarria izango da eta
Iñaki Pierruguesen esa-
netan, horrela herritarren
eskaera inportante bat
beteko da.

Honako lan hauek
egin beharko dira:

- Bi zonalde desber-
din egingo dituzte, ba-


tean ume jolasak egin-
go dira eta bestean
atsedenaldirako tokiak
izango da.

- Bankuek eta bi itu-
rriz hornitutako beste
zonalde bat egitea ere
proiektuan dago. Ho-
rietako iturri batek ur
edangarria eukiko du eta
bestea apaingarria bes-
terik ez da izango.

- Paseatzeko toki
barriak egingo dira ar-
bola tartean. Horrela
paseatzen duen jendeak
gehiago erabiliko eta
disfrutatuko du.

- Zonaldeak beha-
rrezkoak dituen azpie-
giturez haundituko da.
Besteak beste uraren
drenajea, iturri publiko-
rainoko ur hornikuntza.

Proiektua, Aretxa-
baletako Udalak eta In-
gurugiro eta Lan Hi-
draulikoen departa-
menduen artean egin-
dako akordioari esker,
laster aurrera eramán-
go da.



Kanposantu barria

Domu Santu egunean
kanposantura gerturatu
zinetenok ikusi ahal izan
zenuten kanposantu ba-
rria bukatuta dagoela,
nahiz eta azken ikutuak
falta.

Obra horiek, hasiera
batean, kanposantu za-
harrean lekurik ez zego-
elako egin ziren, beraz,
kanposantu barriaz ka-
pazitatea haunditu gura
izan zen.

Kanposantu barri ho-
rrek 272 nitxo ditu, 24
hilobi arrunt eta hezurtegi
txiki batzuk ere bai. Nitxo
bakoitzak 200.000 pz-
tako balioa du. Familia
bakoitzak nitxo bi aloka-

tzeko aukera izan du.

Aurreko Aretxagaze-
ta batean argitaratu ge-
nuenez, etxe guztietara
nitxoak eskatzeko orri
bat banatuko zen. Jada-
nik bukatu da nitxoak
hartzeko eskaera. 98 es-
kaera aurkeztu dira, bai-
ta hezurren matenurako
beste eskaera batzuk
ere.

Horrela, bilera bat
izango dute interesatu
guztiekin epeak zehazte-
ko, informazio gehiago
jasotzeko...

Dena dela, argitu
behar dugu ez dela de-
rri gorrezkoa nitxoak
erostea.




LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Oraingo honetan liburutegiraino joan gara hango barriak ekarri guran. Horretarako hango ardura-dunak diren Andoni eta Joseba Lopez de Armentiarekin egon gara berbetan. Euren ustetan liburutegia gutxi erabiltzen dugu atxabaltarrok, eta askok jakin ere ez daki non dagoen.



"Askok ez daki liburutegia non dagoen"

• **Zenbat urte darozue liburutegian?**

• Guk hemen urte pare bat daroagu.

• **Ze helburu dauka liburutegiak?**

• Helburu nagusia, beste edozein liburutegitan bezala, irakurketa bultzatzea da. Horretarako hemen zerbitzu desberdinak eskaintzen ditugu; informazio orokorra, herriko informazioa, denbora libreko irakurketa eta kontsulta liburuak ditugu.

• **Ze ekintza egiten dituzue liburutegian?**

• Gehien bat jendea-ri liburu desberdinak eskaintzen dizkiogu, orain abenduan irakurketa bultzatu guran ekintza desberdinak egin behar ditugu eskolako umei zuzenduta. Urrian ere herriko umeen artean irakurketa bultzatzeko eta liburutegiaren fun-

tzionamendua erakusteko hemen izan ditugu eskolako umeak. 8. mailako umeak ekarri genituen eta gure helburua egun horietan liburutegiaren erabilpena azaltzea izan zen.

• **Ze laguntza ekonomiko daukazue hori denon aurrera eroateko?**

• Dirulaguntzak Eusko Jaurlaritzak eta Udalak ematen dizkigunak dira. Eusko Jaurlaritzak ekintza berezietarako eta liburuak erosteko ematen digu dirulaguntza. Udalak lokalareñ mantenimendurako eta gure soldatetarako.

Udalak Eusko Jaurlaritzak liburuetarako eta ekintza berezietarako ematen duen diruaren beste zati bat eman beharko liguke, baina ez digu ematen.

Aurtengo urtea berezia izan da, atzeratuta zeuden dirulaguntza bi jaso ditugu Eusko Jaurlaritzatik, 800.000 pztaz inguru eta

"Abenduko ekintzekin liburutegia ezagutzera eman gura dugu, horretaz gain irakurtzeko zaletasuna bultzatu herriko haur eta gazteen artean"

Udalak oso gutxi, barriz, 200.000 pztaz. Bestela urte normal batean 800.000 pztaz inguru jasotzen dugu. Gutxi da, kontutan hartu behar da dirulaguntza horrekin liburuetatik aparte aldizkariak ere erosten ditugula, eta ez gutxi. Mota desberdinetako aldizkari pila bat daukagu.

• **Jende asko etorten da?**

• Ez, jende askok ez daki Atxabaltan liburutegia dagoenik ere. Gehien bat eskolako umeak etorten dira etxekolanak egitera eta liburutegia ez da etxekolanak egiteko lekua. Liburutegia eskolan bidaltako lanen egin ahal izateko, liburuetan kontsultak egiteko da.

Jende nagusia etorten da, baina gehien bat liburuak hartzera gero etxean irakurtzeko.

• **Zuek uste duzue jendearen eskakizunak**


ondo betetzen dituela liburutegi honek?

• Gehienetan bai. Portzentaia bat ematekotan, liburu bat eskatzera datozenak eta topetan ez dituztenak, %20 bat izango da.

Baina jendearen eskakizunak betetzen ditugun ikusteko, ikusi behar da ze jende mota etortzen den liburutegira. Kontutan euki behar da hona ez dela jende nagusi asko etorten, eta etortzen den jende motaren arabera betetzen ditugula eskakizunak. Datorren jendea exigittea bada, liburuak eskatzera dator eta guk liburu horreik ez baldin baditugu, liburuak erosteko orduan hori kontutan eukitzen dugu.

Nobeletan ez ditugu nobedade haundirik izaten. Eusko Jaurlearitzak ematen dizkigun dirulaguntzak normalean aurreko urtekoak izaten dira eta dirulaguntza horiekin urte guztian erosi dezakegun liburuen zerrenda bat dago eta guk liburutegiko liburuak handik aukeratu behar ditugu. Praktikan tranpa batzuk egiten ditugu eta interesatzen zaiguna ere erosten dugu, baina askotan nik uste dut hutsune hori igartzen dela. Arazo handia dugu liburutegia eguneratua eukitzeko eta liburu barriak erosteko.

• **Atxabaltako jendeak ze liburu mota irakurtzen ditu?**



• Infantilak eta nobelak.

• **Sarri aldatzen dira liburutegian liburuak?**

• Hemen liburuak desfasatuta ba dago erretiratu egiten dugu, Bestela zaharrak eta errepika-tuak.

Urtero, liburu barriak erosten ditugunean, lekurik ez dugunez; batzuk, zaharrenak edo desfasatuak, erretiratu egin behar izaten ditugu, liburutegian lekua egiteko, bestela ez genuke lekurik eukiko.

• **Liburutegi hau noiz dago zabalik?**

• Orain goizetan zabalitzen hasi gara, 11etatik 1ak arte. Kontutan euki behar da liburutegia arratsaldeetan umez beteta egoten dela eta

zerbait ikasi gura duenak traba haundiak eukitzen dituela, beraz goizez zabalik izanda samurragoa izango da jende desberdina etortzea. Gero arratsaldean 5,30etatik 8,30ak arte zabalitzen dugu. Lehen arratsaldean besterik ez genuen zabalitzen eta oso denbora gutxi zen. Edozein arauk dio liburutegiak denbora luzeagoan egon behar duela zabalik.

• **Atxabaltako liburutegia gutxi erabil-tzen da?**

• Bai oso gutxi. Gainera, leku txarrean dago eta herriko jende askok ez daki non dagoen.

• **Abenduan irakurketari buruzko jardunaldiak egin behar dituzue, zergatik?**

• Gehien bat irakurketa bultzatu eta liburutegia ezagutzera eman gura dugu herriko ume eta gazteen artean. Horretaz gain, irakurtzeko zaletasuna bultzatu eta liburutegiaren erabilpena azaldu gura diegu herri-tarrei. Normalean, irakurketa bultzatzeko txikitatik hasi behar da; hori dela eta, jardunaldi horiek umeei zuzendu gura izan diegu. Horrelako jardunaldiak antolatzen ditugun lehenengo urtea da, behar bada datorren urterako jende gehiagori zabaldukoak egingo ditugu; euskaltegiari, Lanbide eskolari...


Aurten abenduaren 1, 2 eta 10erako ipuin kontalariak ekarriko ditugu; Pello Añorga, Agurtzane Intxaurrea eta Koldo Amestoy. Abenduaren 14ean Andu Lertxundi eta Juan Kruz Igerabidek poesia errezitara eskainiko diete 5. eta 6. mailako umei eta abenduaren 16an Iñaki Mendiguren idazle eta itzultzailearekin elkarrizketa izango dute 7. eta 8. mailako gazteek.

• **Ze nobedade duzue?**

• Liburuetatik aparte, aldizkariak daukagu. Gai desberdinetakoak. 60 aldizkari inguru ditugu.

Datorren urterako fotokopiagailua ekartzera espero dugu eta aurrekontua heltzen bazaigu egunkariak ekartzeko asmoa daukagu.

Oraingoan gure atal honetara Asier Cobos ekarri dugu. Asierrek 19 urte ditu eta bere afizioa Moto-krosa da. Betidanik gustatu zaizkio motorrak, txikitan askotan lapurtzen zion bere aitonari motorra, hori dela eta 14 urte bete zituenean motor txiki bat erosi zioten, gero 15 urterekin handiago bat. Bere ustez afizio garestia da eta hainbeste gastatzeko oso zaletua izan behar da.



Mendian gora, mendian behera

• **Zenbat denbora eramaten dizu afizio horrek?**

• Ia asteburu guztia, motorra ondo badaukat eta astean zehar denbora baldin badaukat.

• **Afizio garestia da?**

• Oso garestia da. Askotan ezin izan naiz motorrean ibili, dirurik ez daukadalako motorra gertu ipintzeko. Motorrari etengabe piezak aldatu behar dizkiot.

• **Zer dauka moto-kros ekipo batek?**

• Motor bat, norma-la denez. Gero beste guztia jantziak dira; babela daukaten belaune-

taraino heltzen diren botak, fraka akoltxatuak, kaskoa, betaurrekoak begietan lokatza sartu ez dakidan, gerrikoa, gantteak eta plastikozko peto bat.

• **Txapelketaren batean parte hartu duzu?**

• Txapelketetan ez, afizionatuentzako froga batzuetan bai. Jende askok, motor munduan oso ona denak, txapelketan ezin du parte hartu, dirurik ez daukalako.

• **Zer behar duzu afizio hori betetzeko?**

• Txapelketetan parte hartzeko federatuta egon behar da. Menditik

ibiltzeko, barriz, motorreko paperak bakarrik behar dira, gidatzeko karnetik ez, baina errepidean ibiltzen bazara multo ipini diezazukete.

• **Non praktikatzen duzu?**

• Alabita eta Kurtzbarri inguruak gustetan zaizkit. Batzuetan menditik joanda Villarrealeraino ere heldu naiz, beste batzuetan Gasteizko Gamarrako pistara ere joaten naiz.

• **Zer gustetan zaitu gehiago pistan edo mendian ibiltzea?**

• Gauza samurrak ez zait gustetan. Porlanezko pistetan ibili beharrean

pista naturalak gurago ditut, batez ere euria egiten duenean eta lokatza dagoenean, orduan motorra kontrolatu behar da eta horrela ikasten da.

• **Arazorik euki duzu mendian jendearekin?**

• Askok. Iraintzetik harriak botatzera. Mendian gehinetan egindako bideetan ibiltzen gara eta ez hortik kanpo. Baina egia esateko, motorrak zarata handia ataraten du eta horrek asko molestatzen du jendea.

• **Zer gauza interesgarri esan dezakezu afizio horren gainean?**

• Motorra erosteko, lehenengo gauza izan behar zarela, gainera motorraren mantenua eta aseguru oso garestiak dira. Baina dirua baldin badauka, zorte on!

Kirol hau oso polita da eta gogorra gainera.

• **Motorrean ibiltzea nekagarria da?**

• Bai, jendeak uste du hori ez dela kirola, baina ni motorrean ibilita gero, lur jota heltzen naiz etxera. Oso kirol konpletua da.

• **Zer esaten dizute familiakoek?**

• Hasieran nire ama, ama guztien moduan, asko kezkatzen zen, beti istripua eukiko nuela pentsatzen zuen, baina gero amore eman behar izan zuen.

Aitak, barriz, beti la-
gundu dit.

Besteak beste, Atxabalta ziklo-kros lasterketak antolatzea-gatik izan da ezaguna Estatu mailan. Munduko hainbat txapel-dun pasatu dira gure herritik: Longo, Thaler, Kluge... Baina dagoe-neko urte bi daroagu horrelakorik ikusi barik.



Ziklo-krosa: herrian historia egin duen kirola

Ziklo-krosaren historia Atxabaltan duela 25 urte hasi zen. Garai hartan Eloy Uriarte, Angel Arrese eta beste atxabaltar batzuk elkartu eta lehen gestioak egiteari ekin zioten, "lortu genuen lehenengo lasterketa kategoriaz nazionala izan zen, exito bat izan zela ikusita, hurrengo urtean Espainiako txapelketa antolatu genuen eta handik aurrera nazioarteko txapelketa egiteari ekin genion."

Atxabaltarrok ziklo-krossa egiteko leku desberdinak ezagutu ditugu, "hasiera batean Andramari auzunean zegoen helmuga, ziklo-krosak behar duen ikusgarritasuna emateko Apotxetxeberriko aldapa erabiltzen genuen, gero telebistaren esijentziengatik lekuz aldatu beharra euki genuen, Coprecira. Zirkuitoa askoz politagoa, batuagoa eta espektakularra zen. Azken urte hauetan Arbizelai eta

Santutxu aldean egin ditugu lasterketak."

Atxabaltako karrera estatuko inportanteena, zaharrena eta mundu mailan aurrean ibiltzen ginela jakinda zergatik bertan behera utzi? "Duela sei urte Superprestigioa egiteko Alemanian egon ginen eta batekin zein bestearekin berba eginda gero, orduko federazioko arduradunak, Pedro Larraiozek, baietza eman zigun. Momentua heldu zenean guri laguntzen ibili zen Larraioz berak, kentzea erabaki zuen eta Atxabaltan egin beharrean Zarautzen egitea. Atxabaltan egin ezkerorak ez zuen protagonismoa hartuko eta protagonista izan gura zuenez ezetza eman eta Zarautzen antolatu zuen. Jakina, erabaki hura ez genuen begi onez hartu.

Horrez gain, azken urte hauetan ziklo-krosaren mailan aldaketa batzuk eman dira hiru mailatan

banatuz, A, B eta C. Gu B mailan jarri gintuzten eta Estatuko beste lasterketa guztiak A mailan jarri zituzten, asko haserretu ginen erabakia entzutean eta uztea pentsatu genuen. Dena dela, uste dugu une onean utzi gurela."

Herriak zelako erantzuna eman duen, antolatzailerik egin beharreko galderra zen. "Urte askotan zoragarria, ona baino hobea. Uste dugu ez zegoela mundu osoan horrelako partehartzerik baina azken sei urteotan jaitsiera igarri zen."

Entzundakoak entzunda, jakin badakigu datorren urtarrean, ziklo-kros proba batzuk izango ditugula, ez dira nazioartekoak izango, baina bere garrantzia edukiko dute. "Datorren urtarrean 2an ziklo-kros mailako Gipuzkoako txapelketa izango dugu kadete eta jubenil mailan, Arbizelai eta Santutxuko ibilbidean izango dira."

Donostian izan zen maratonia, Munduko txapelketa, Ramon Jausoro atxabaltarra 49. postuan geratu zen. Euskadiko 2. izan zen 2h 18' 37" denbora eginez, horrez gain bere marka pertsonala ere 13"tan hobetu zuen. Atxabaltarren beste marka batzuk honako hauek izan ziren: Larrañagak 3h 3' 1", Fernando Uribesalgok 3h 9' 12", Jesus Lombide beterranoak 3h 11' 8", Rubiok, barriz, 3h 14' 10" eta Guridik 3h 14' 50" ko denbora.


Datorren azaroaren 15ean, igeriketa ikastaroak hasiko dira. Oraindik plaza batzuk libre daude apuntatu gura duenarentzako. Informazio gehiago gura izan ezkeror, Kiroldegian Pedro Balenzia-gari galdetu edo 79 64 61 zenbakira deitu.

Hona hemen Izurieta baserriaren blasoia eta armaria, etxe horretako ugazaba zen Andres López de Ysurieta-k 1.635. urtean jasotako Armen Ziurtagirian azaltzen den bezala, luzaroan indarrean egon zen pentsamolde eta ideologia ofizialaren islada ezin hobea.

Kasu honetan, gainera, ez dira ez, txantxetakoak, Ysurietarren nobleziaren antzinasuna adierazteko asmoz agertzen diren sinboloak. Alde batetik leinuaren izenari lotuta dauden otsoak (lupus=otso) eta bestetik nobleziaren ogibidea adierazten duten beste bi sinbolo: 1212. urtean Lope de Ysurietak Jaengo Navas de Tolosa-ko batailan irabazitako sei kate-maila, Miramamolinen -alorabideen erregea - kanpaina denda babeste zuten kateak, eta ezpataren uhala adierazten duen zeharkako marra, hain zuzen.

Halere, ez dezagun pentsa armek prestatasuna berez zekartenik; ospe handiko pertsonaien ondoan paperetan agertzen ez diren pertsona xumeak zebiltzala gauza jakina da, eta are gehiago armabatailen kontuetan sartzen baldin bagara. Horrela, herri guztietan aurki daitezke garai hartan eskaldunentzat beharrezkoa ez zen soldadutza derrigorrez betetzen zutenak. Hala nola, alkateek herri bakoitzari zegokio soldadu kupo betetzeko larri zebiltzanean, indarrean zegoen "Ordenanza general de vagos" deituriko araudiara jotzen zuten. Ehizaldi horietan harripatzen zirela esan genezake, alkateek aurkeztutako salaketa beti berdina baitzen: lapurretan, eta han hemenka ibiltzea, nagiak izatea, errespetua zer zen ez jakite, eta gazteen kasuan, eredu okerra izatea.

Gizon desbideratu hauek zuzentzeko bideak benetan ereduizkoak izaten



ziren: Udaletxeko gartzelan, girgiluz josita hori bai, egonaldia pasatu ondoren, zortzi, (8) urtetako soldaduzka egitera abiatzen ziren Donostiako "La Mota" gaztelurat, arestian aipatutako araudiaren arabera "vagamundos, libertinos y mal-

entrenidos" bezala azaltzen ziren atxilotuak.

Eta, jakina, soldadu berezi hauek, intsumiso sozial hauek, ez zuten armari noble eta harrorik asmatzeko astirik izan; ezta non jartzekorik ere.

ERRETRATUAREKIN JOLASEAN

- Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.

- Asmetan dutenen artean K-2 espedizioko xandal-fraka zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

Non dago argazkian ageri den iruria?

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Larriñon)

Aurreko lehiaketaren irabazlea ASIER BENO-GOA. Zorionak.



Erantzuna:

Izen-abizenak:

Helbidea:

Tfnoa:

Arineketan parte hartzera



J.J. Aretxaga

Azaroan sartu gara, azak gustora jaten diren aroan (babakin jakina). Baina hil hau jaildiekin ere lotzen dugu, batez ere atzeratuen aldeko jaildiekin. Aurten azaroaren 13an eta 27an izango dira jaildiok. Herritarrak luzitzeko egiten dira. 13an egingo den jaildian, txoritzar batek esan didanez, aldizkari honetako kolaboratzaile bat izango da aurkezlea, **Jon Antxia**. Bueno, eta norbaiti omenaldia egiteko ere aprobetxatu izan da. Akordetan naiz orain dela urte batzuk **Litri eta Bernaberi** egin zitzaizela omenaldia. Aurten, azaroaren 27an, Zaraia zinean **Arantxa andereñoari** egingo zaio omenaldia, herrian ikastolaren sorreratik egindako lanagatik eta beste mila arrazoiengatik.

Omenaldiekin jarraituaz, azaroaren 7an Juan Ramon Arana argazki lehiaketa egin zen eta 22 gaztek parte hartu zuten. Irabazleak? Ba ete du horrek inportantziarik. Partizipatzea ei da inportanteena. Galdetu bestela Bilbao-Behobia... (barkatu), Behobia-San Sebastian karreran parte hartzen dutenei. Atxalbaltatik autobusa antolatu dute eta hauexek dira autobusean doazen

karreristak: **Pedro Azkargorta, Aitor Atxa, Ramon Jausoro, Joseba Larrinaga, Jesus Lonbide, Beñat Markaide, Joseba Gonzalez, Josu Lanzos, Xabier Arenaza, Jose Rubio, Jesus Mari Rosado, Jorge Oiarbide, Ramon Domaika** eta **Iñaki Etxebarria**. Izen horien artean badago destaketan duen bat. **Ramon Jausorok** lehengo eguneko Donostiako maratoian bere errekor pertsonala hobetu zuen, 20 segundutan.

Nahiz eta deportista izan ez, euren inguruan ibiltzen da **Asier Aranguren**. Herri-KO izeneko aldizkariak zekarrenez, herri-komunikabideei buruzko tesia prestatzen dabil. Bere tesi horretan Aretxagazeta aitatu ete du?

Orain artekoa nahiko serioa izan da. **Beinkek** antolatzen dituen kantu afariak ere serioak izaten dira, baina azkenean umore ona nagusitzen da. Hurrengo kantu afaria azaroaren 12an izango da, eguakotxean. Horrelako afariak eta bazkariak inportanteak dira eta hori ondo dakite **Areantzako emakumeek**. Azaroaren 20an Mitarte-garain elkartuko dira urtero egiten duten bazkarian.

Etxeko kontuekin bukatuko dut. Aldizkariko erretratuak hobetu guran genbiltzan aspaldian eta **Igor San Juanek** lagunduko digu horretan. Ea igarten diozuen.

12 EGUAKOTXA

- Gaueko 10etan, Zaraia zineman "SLIVER (ACOSADA)" **fimea**.

14 DOMEKA

- Murrukixo Mendi Elkartearen urteera: **Aiako mendietara**.

- Futbol partidua: U.D.A - Bergara K.E

- Zaraia zineman, arratsaldeko 4,30etan "ASTERIX, EL GOLPE DEL MEHIR" eta 7etan "SLIVER (ACOSADA)" **filmeak**.

13 ZAPATUA

- Gaueko 10etan Zaraia zineman, **Atzertuen jaialdia**.

16 MARTIZENA

- Udaletxeko Ganba-

ran "**Emakumea: Gizarte trebetasunak**" buruzko hitzaldia Tril emakume taldeak antolatuta.

20 ZAPATUA

- Gaueko 10etan, Zaraia zineman, "EL ULTIMO GRAN HEROE" **filmea**.

21 DOMEKA

- Murrukixo Mendi

Elkartearen urteera: **Len-dakara**.

- Zaraia Mendi Taldearen urteera: **Aieku-ra**.

- Zaraia zineman arratsaldeko 4,30etan "DANIEL EL TRAVIESO" eta 7etan "EL ULTIMO GRAN HEROE" **filmeak**.

23 MARTIZENA

- Udaletxeko Ganbaran "**Ba al dago emakume berriaren definiziorik?**" buruzko hitzaldia Tril emakume taldeak antolatuta.

ARETXAZOKA

Lana

- U.B.I.ko ikasle bategen O.H.Oko klase partikularrak emango lituzke; asignatura guztiak. Interesatuak telefonoz hauekara deitu: 79 69 63 edo 77 03 30

- Irakasle tituluak klase partikularrak emango lituzke O.H.O.ko 1go mailatik 8. mailara arte. Tfnoa: 77 10 72

Etxebizitza

- Pisu batzen bila nabileren Aretxabaletan. Bi edo hiru logela jantzita eukitea gustatuko litzaidake. Interesatuak deitu 79 84 67 telefonora.

- Pisu bat alokatuko nuke. Jantzi barik hobe. Interesatuak deitu 71 47 10 telefonora eta losuz galdetu.

Etxebizitza

- Salgai dago pisu bat. Interesatuak deitu 79 02 73 telefonora.

- Etxebizitza salgai Mitarte 15 kalean. Dei ezazu 79 74 95 telefonora, arratsaldeko 8,30etatik aurrera.

- Etxebizitza bat salgai. Interesatuak Pagalday dendan galdetu.

Denetik

- Txamarra marineren bat galdu da, Mekan kotxeak garbitzeko lekuan.

- Topetan duenak deitu dezala 79 90 37 zenbakira eta Olatz Igle-siasez galdetu.

- Pianoak afinatzen dira. Tfnoa: (945) 44 52 85. Aramaixon.

SEAT

Audi VW

**GARAJE
OSKAR**
Basabe poligonoa
A - 2 - 4
Tfnoa: 79 98 74

ZARAIA TABERNA

GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA
ANAIK

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 77 07 94
79 91 84


ITURGINTZA

JJ

Tfnoak: 79 07 34
79 31 87

LEIBAR

ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA

URBALTZ
elKortea



Mitarte 21, behea
Tfnoa: 79 79 79
ARETXABALETA

TXIMAK

ILEAPAINDEGI
MIXTOA

Herriko plaza, 5
☎ 79 83 64

**Zatoz ezagutzera
ZUHAITZ
jatetxea!**



**BAZKARI
ETA AFARI
ONENAK!!!**

Tfnoa: 71 46 08
Astelehenetan itxita

GATZAGAN

RKLU

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK
URKULU, S .A

Mitarte, 23
Tfnoa: 79 96 66

IMANOL ARRAZOLA

KLINIKA DENTALA

Otalora, 18 - 1. D
☎ 79 93 55

ARETXAGAZETAKO
BAZKIDE izan gura
baduzu deitu:
☎ 79 01 05

Arratsaldeko
3retatik 7retara

**Mobiliario
ARENZA**

ALTZAIRUAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

LASA-AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea,3
☎ 79 29 26
ARETXABALETA

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

OSKAR

HARAGITEGIA

Loramendi, 1
☎ 79 71 69
ARETXABALETA

NERIAN

Loradenda

Otalora, 14 behea
Tfnoa: 79 70 66

Zure hipoteka zaharrari
ordezkoa heldu zaio.

Hipoteka Berria %9,75ean*



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA